

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Oposaketak eta lehiaketak

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

3959

937/2020 EBAZPENA, irailaren 8koa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiarena. Honen bidez izendatzen da Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Araba Unibertsitate Ospitaleko (Arabako Erakunde Sanitario Integratua) osasun-prestakuntza espezializatuko ikasketaburuaren eginkizunak lehiaketa bidez betetzeko prozesuaren hautaketa-batzordea.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiak otsailaren 27an eman zuen 236/2020 Ebazpenaren bidez, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Araba Unibertsitate Ospitaleko (Arabako Erakunde Sanitario Integratua) osasun-prestakuntza espezializatuko ikasketaburuaren eginkizunak lehiaketa bidez betetzeko deialdia egin zen.

Ebazpen horren 6. atalean xedatutakoari jarraiki, eta Euskal Autonomia Erkidegoan osasun-prestakuntza espezializatuaren sistema arautzen duen martxoaren 6ko 34/2012 Dekretuaren 16.3 artikuluekin bat etorriz, Hautaketa Batzordea Osakidetzako zuzendaritza nagusiak izendatuko du.

Horiek guztiak horrela, eta indarrean dagoen legedian pertsonaleko gaietan aitortuta ditudan eskumenez baliatuta, honakoa

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Hautaketa Batzordea izendatzea, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Araba Unibertsitate Ospitaleko (Arabako Erakunde Sanitario Integratua) osasun-prestakuntza espezializatuko ikasketaburuaren eginkizunak lehiaketa bidez hornitzeko. Batzordekideak hauen izango dira:

- Batzordeburua: Enrique Gutiérrez Fraile.
- 1. Batzordekidea: Begoña Azcarate Ayerdi.
- 2. Batzordekidea: Ana Sáez Fernández.
- 3. Batzordekidea: Juan Carlos Alonso Blas.
- 4. Batzordekidea: Antonia Daza Gutiérrez.
- Idazkaria: Maria Jose Pujana Uriarte.

Bigarrena.– Ebazpen honek duen egunetik aurrera emango ditu ondorioak.

Hirugarrena.– Ebazpen hau EHAAn argitaratzeko agintzea.

2020ko urriaren 1a, osteguna

Laugarrena.– Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsua aurkez dakiok Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluari, hilabeteko epean ebazpen hau EHAAAn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko irailaren 8a.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusia,
JUAN LUIS DIEGO CASALS.